

**2009-07-17**

## **GERRA ZIBILA RAMON SAIZARBITORIAREN NARRAZIOGINTZAN**

### **IÑAKI ALDEKOA**

EHU

Nire saio honetan *Gorde nazazu lurpean* liburuko "Gudari zaharraren gerra galdua" eta "Asaba zaharren baratza" narrazioak izango ditut hizpide. Lehenengoa bigarrena baino gehiago. Bigarren atal batean, dokumentazio eta garaiko informazio zehatza nola bihurtzen den literatura. Atal honetan errealismo modernoaz hitz egingo da. Hirugarren atal batean, maila sinboliko batean, *Hamaika pauso* ere behin baino gehiagotan aipatuko da, batetik bestera bitartekari dabilen karga sinboliko handiko elementu baten eskutik. Eta laugarrenez, gerra garaiko nazionalismoaren ondareaz egingo da gogoeta.

Funtsean, "Gudari zaharraren gerra galdua" gerra barrutik bizitakoaren eta hura kanpotik begiratzen duenaren arteko dialektikaz dihardu: gerrako elbarri errepublikarraren pentsioa lortzeko ahaleginean ari den gudari zaharraren eta pasadizoa tramite administratibo gisa bizi duen notarioaren arteko dialektika. Ze gerraren aurrean nondik begiratzen den halakoxea izango da hari buruzko lekukotasuna: gertuagoakoa edo urrunagoakoa, intimoagoa edo arrotzagoa, azken batean, egiaziagoa edo gezurtiagoa.

"Asaba-zaharren baratza" narrazioan ere, "Gudari zaharra..." renean gertatu zen bezala, Ceferino Jemeinek atondu zuen dokumentu historikoaren eta Historiara pasatzeko adinako izenik ez eta ekintza horietan partehartze zuzena izan zuen protagonista xumearen arteko dialektika gertatzen da. Nola kontatzen da, nola manipulatzen da Historiaren errelatoa eta ze aportazio du horretan pertsonaia umil eta moralak.

#### Bibliografia

Saizarbitoria, Ramón, *Gorde nazazu lurpean*, Erein, 2000.